

LEHENENGO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

MINTZAMEN PROBA

- Saio bakoitzean bi azterketarik hartuko duzue parte.
- Probak aurkezpena eta bi ariketa izango ditu. Atal guztiak egin behar dira.
- Aldez aurretik ez da ezer prestatu behar.
- Egin beharreko probaren alderdiren bat ulertzen ez baduzu, azterketa hasi baino lehen, epaimahaiari eskatu beharko diozu zalantzak argitzeko.
- Saioa grabatu egingo da.

	PROBAREN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
MINTZAMEN PROBA	<p>Aurkezpena</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ez da ebaluatuko. • Labur-labur bakoitzak bere burua aurkeztuko du (Izen-abizenak eta NANA). <p>1. ariketa: Bakarrizketa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gai baten inguruko bi fitxa banatuko dira. • Argazki batean ikusitakoaren gainean iritzia eman behar diozu azterketakideari. • Denbora: 1 min fitxa begiratzeko, eta 3 min iritzia emateko. • Batak bukatzen duenean, besteak ekingo dio. • 15 puntu. <p>2. ariketa: Elkarrizketa</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gai baten inguruko fitxa banatuko zaizue. • Adostasun batera iristeko egoera bat aurkeztuko zaizue. Helburua negoziatzea eta informazioa trukatzeko da. • Denbora: 1 min fitxa begiratzeko, eta 6 min elkarrizketan aritzeko. • 15 puntu. 	15-20 min	30	15



1. ariketa. Eman zure iritzia gai honi buruz

- Komentatu argazkia eta esaldiak.
- 1 min duzu fitxa begiratzeko eta 3 min iritzia emateko.

LANBIDE-HEZIKETA EDO UNIBERTSITATEA?



Lan-merkatuak lanbide-heziketako profesionalak eskatzen ditu. Hortaz, errazagoa da lana aurkitzea.

Prestakuntza oso espezifikoa da, eta ez dizu aukerarik ematen lanpostu askotarako.

Mintzamen-proba (B fitxa)

LANBIDE-HEZIKETA EDO UNIBERTSITATEA?



Unibertsitateko ikasketak ezin ditu edonork egin, prestakuntza-maila altuegia da eta.

Unibertsitateko ikasketak luzeak dira; hala ere, horrek ez du ziurtatzen lana topatuko duzunik.

1. ariketa. Eman zure iritzia gai honi buruz

- Komentatu argazkia eta esaldiak.
- 1 min duzu fitxa begiratzeko eta 3 min iritzia emateko.
- Ebaluatzerakoan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Gaiari heldu diozun.
 - Esaten duzuna ulergarria den.
 - Euskara nola erabiltzen duzun: jarioa, zuzentasuna eta aberastasuna.

LANBIDE-HEZIKETA EDO UNIBERTSITATEA?



Lan-merkatuak lanbide-
 heziketako profesionalak
 eskatzen ditu. Hortaz,
 errazagoa da lana aurkitzea.

Prestakuntza oso espezifikoa
 da, eta ez dizu aukerarik
 ematen lanpostu askotarako.

1. ariketa. Eman zure iritzia gai honi buruz

- Komentatu argazkia eta esaldiak.
- 1 min duzu fitxa begiratzeko eta 3 min iritzia emateko.
- Ebaluatzerakoan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Gaiari heldu diozun.
 - Esaten duzuna ulergarria den.
 - Euskara nola erabiltzen duzun: jarioa, zuzentasuna eta aberastasuna.

LANBIDE-HEZIKETA EDO UNIBERTSITATEA?



Unibertsitateko ikasketak ezin ditu edonork egin, prestakuntza-maila altuegia da eta.

Unibertsitateko ikasketak luzeak dira; hala ere, horrek ez du ziurtatzen lana topatuko duzunik.

2. ariketa

Gaiaren inguruko bat-bateko elkarrizketa egingo duzue orain.

- Kontuan hartuko dugu zenbat/nola parte hartzen duzuen.
 - Materiala eman (bakoitzari bere fitxa).
 - Zer egin behar duten azaldu.

■ Egitekoa:

ZER OPARITU LEHEN JAUNARTZEAN?

Bikotea zarete, eta, aurten, zuen bi ilobak (Ane eta Jon) lehen jaunartzea egingo dute. Zuek opari bana egin behar diezue, baina zalantzak dituzue. Aztertu argazkietan agertzen diren opariak, eta komentatu bakoitzaren alde onak eta txarrak. Ondoren, saiatu adosten zer oparitu iloba bakoitzari.

- 1 min duzue fitxa begiratzeko, eta 6 min inguru elkarren artean elkarrizketa egiteko.

Jardunaren bitartean:

- Hitz egiten utzi eta denbora kontrolatu.
- Beharrezkoa bada, esku hartu, moztu, txanda aldatu...
(komunikazioa eteten bada, desoreka badago, ekoizpena laburregia bada).
- Horretarako, hemen dituzu galdera osagarriak.

Galdera osagarriak:

- Zuk jaunartzea egin zenuenean, zer opari izaten zen ohikoa?
- Zer iruditzen zaizu lehen jaunartzea ezkontza bezalako ospakizun bat izatea?
- Zer iruditzen zaizu bederatzi urterekin smartphone bat oparitzea, interneterako sarbide eta guzti?

ZER OPARITU LEHEN JAUNARTZEAN?

